



## **ENPRESAKO BI KIDEREN ATXILOKETARI BURUZKO ADIERAZPENA**

*Zaldibar, 2020ko uztailaren 22a.*- Ertzaintzak atzo Verter Recycling enpresaren bi ordezkari atxilotu zituela eta, enpresak honako hau adierazi nahi du:

- 1.- Atxilotetak poliziaren erabakiz egin dira. Ez dago jarduketa horri buruzko irizpen judizialik, eta Poliziak berak baieztatu die enpresaren ordezkari legalei erabakia berea dela, ez epaitegiarena. Komunikabideren batek kontrakoa argitaratu duen arren, epaileak ez du atxiloteta agindu.
- 2.- Uste dugu jarduketa hori zuzenbidearen aurkakoa dela, eta, beraz, legez kanpoko atxiloteta dela; izan ere, ez dakigu Legeak jarduketa hori hertsiki justifikatzen duen informaziorik dagoen, batez ere ikerketa judizialak eta polizialak bost hilabetez luzatu diren honetan, eta enpresa beti laguntzeko prest egon dela kontuan hartuta.
- 3.- Zehazki, zabortegia amildu zenetik, enpresaren ordezkariak eta kudeatzaileak erabateko lankidetzara eskaini diete agintariei eta estamentu judizialei, zoritxarreko istripua eragin zuten kausak argitzeko. Hori dela eta, erabat neurritz kanpoko iruditzen zaigu jarduketa; antza denez, atxilotuei deklarazioa hartzea du helburu, baina biak egon dira beti horretarako prest (orain arte, epaitegiak eta poliziak ez dituzte atxilotuak deitu deklaratzera).
- 4.- Prozedura judiziala aurretiazko eginbideen atariko fasean dago. Fase horretan, zabortegia amildu izanaren balizko arrazoiak aztertzen eta ikertzen ari dira, eta, beraz, egiaztatutako daturik eta egitaterik ez dagoen bitartean, uste dugu guztiz bidegabeak direla horrelako jarduerak.

Verter Recycling-en *online* jakinarazpenak: [www.verter.eus](http://www.verter.eus)

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Tel.: 94 415 86 42*